


OIOLOBUSTIA



LIBURUAREN FITXA

JADOUL, Émile. *Oilobustia*. Tarttalo, 2008

Aurkezpena

Batzuetan pentsatzen dugu gurasoek dena ahal dutela, beste inor baino ederrago, ausartago, zintzoagoak direla. Baina hori ez da beti horrela izaten; gurasoek ere beren ezinak dituzte. Batzuetan erakusten dizkigute beren ezinak eta beste hainbatetan disimulatu egingo dute seme-alaben aurrean. Zenbaitetan gurasoek haien beldurrak eta ezinak gainditzen dituzte beren seme-alabei esker.

Kontaketa

- Liburu honetan agertzen diren ilustrazioak bereziki espresiboak dira.
- Gorputzaren posturek eta aurpegien espresioek oso modu sotilean erakusten dute pertsonaiek une bakoitzean sentitzen dutena: Aitaren beldurra eta lotsa eta semearen ausardia eta harridura.
- Kontaketa ilustrazioen behaketan oinarritu.
- Lehendabizi istorioa osatu, gero kontatu, azkenean irakurri.

Aukerako proposamenak

- Beldurrezko episodioak gogoratu arazi.
- Noiz izaten duzu beldurra, non, zer egiten?
- Gurasoek lagundu egin dizute horrelako batean?
- Ba al dakizu gurasoak zeren beldur diren?
- Zuk laguntzen diezu beldurra uxatzen?

Proposamenak zehazten

- Beldurra uxatzeko beste pertsonen laguntza behar izaten dugu.
- Konfiantza ariketa bat egin daiteke: aulki baten gainera igo, begiak itxi, eta baten batek eskua emanda lurrera salto egin.
- Begiak estali eta oilo itsuaren jokoa egin: “Ni ez naiz xomorroa” jolasa erabili daiteke horretarako. (*“Sasi guztien gainetik”*).